

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, gure proiektuari hasiera eman aurretik, gaur egungo gizartean identifikatu dugun hainbat arazo planteatu, gure lanaren sorkuntzaren arrazoiak planteatu eta xede nagusiak azpimarratuko ditugu.

Gaur egungo gizarte honetan, argi dago, alde batetik, kutsadura arazo larrienetako bat bilakatu dela eta honi irtenbide bat ematea ezinbestekoa dela. Espainia Europar Batasuneko laugarren plastiko-ekoizlea da, eta, plastikoaren % 30 baino ez dira birziklatzen herrialdean. Gainera, erabiltzen den plastikoaren zati handi bat elikagaiak eta manufakturatutako produktuak paketatzeko erabiltzen da. Hau da, erabilera bakarreko plastiko hauek kontsumitzaileen eskuetan minutu gutxi batzuk baino ez dituzte ematen. Arazo honen aurrean, datu hauek aztertu eta gizarteak benetan gai honen inguruan konponbide bat beharrezkoa zuela ikusita, gure proiektua martxan jarri dugu gure ingurumenaren ongizatea sustatzeko asmoz. Bestetik, gizartean jostailuen inguruan ezarrita dauden estereotipoei aurre egin nahi diegu gure proiektuaren bidez. Emakume edota gizon bati jaiotzatiko egokituko litzaiokeen gorputzaz gain beste gorputz mota batzuk izateko aukera dagoela islatu nahi diegu belaunaldi berriei.

Gure enpresaren xede nagusiak, plastikoaren erabilera egokia bermatzea eta haren birziklapenerako ekintza bat proposatzea dira. Hau da, bilduko dugun plastikoarekin panpinak sortuko ditugu, zeinak gizonezkoa edo emakumezkoa izatea ez den bere genitalen araberakoa izango.

Proiektu hau aurrera eramateko, Ikastolen Elkartarekin jarriko gara harremanetan beraien ikastoletatik lortzeko plastikoa. Euskal Herri osoko ikastoletara joango gara plastikoa biltzera.

Gorputz perfektuaren iritzi idealizatua ezabatu eta aldatzeko, plastikoz egindako panpin transexualak sortuko ditugu.

Plastiko bilketa egin ondoren, "Clon Factory" enpresarekin kontaktatuko dugu, bildutakoarekin gure panpinak sortzeko. Enpresa hau panpinak egiteaz arduratuko da, gurekin produktuaren diseinua adostu eta gero.

Diseinuari dagokionez, bi diseinu ezberdin sortuko ditugu, biek 40 zentimetroko altuera izango dute eta zabaletaz 8 zentimetro izango dute, baina batak bularrak eta zakila izango du eta besteak, berriz, bular laua izango du eta alua.

Gure produktua eskuratzeko bi modu edukiko ditu gure berezeroak. Lehenengoa Toys R' Us dendan erosteko aukera izango du. Honela panpina fisikoki ikus dezake eta momentuan erosi. Bigarren aukera gure papinak erosteko gure webgunearen bidez izango da. Bertan gure proiektuari buruzko infomazio guztia egongo da atxikituta panpinen irudiekin eta guzti.